

# Milaka kilometro

**Antton Izagirre**

**A**skotan aipatu arren ez da sekula ere nahikoa izango. Otsailaren 20ko asteburuan milaka herritarrok milaka kilometro egin ditugu Espainiaren kartzela politika salatu eta presoan gerturatzea eta etxeratzea eskatzeko. Komunikabide eta eragile desberdinek alde kuantitatiboa nabarmendu nahi izan dute: herritar asko kilometro pilo egiten.

Ez da halere hori alderdirik nabarmena. Ikuspegi kualitatiboa, hau da, gizabanako bakoitzak bidaia horretan bizi izandako gorputzaldi, sentimendu eta emozioek erakusten digute auziaren atzean dagoen injustiziaren tamaina. No-

la, astea joan eta astea etorri, etxekoei eta maite dituzten horiei astebeterako bizipoza eta samurtasuna eskaintzearen, senide eta lagunek, ziurgabetasuna, arriskua, mina, atsekabea, tristura eta konta adina emozio bizi dituzten. Askotan esan, idatzi eta irakurri arren, ez dago norberaren bizipena baino erakusle aproposagorik, halako ibilaldiak uzten duen arrastoaz jabetzeko.

Bezperako arratsalde-gauean autobusean sartu, nola hala gorputza kokatu eserlekuan, lorik ezin, giharrek minbera, hamabi orduren buruan minutu batzuetako bisita eta buelta; solaskidea han utzi eta itzuleraren karga, samina, ezinegona,

egun osoa pasatxo da etxeraterako. Bitartean emozioek, emozioek eta emozioek ez dute etenik. Objektiboa da giza eskubideen urraketa argiaz ari garela, Estatuak neurri horretako egoerak ahalbidetu, mantendu eta eragiten dituenan, baina eskubideen urraketa gain pertsonen, preso, senitarteko eta lagunen suntsipena, bilatzen du sakabanaketak.

Hitzez esplika liteke baina behin bederen bizi ez duenak nekez uler lezake astero senideak jasan behar duten neurri horretako ankerkeriak sorturiko oinazea. Bizikidetzaren aldeko lehentasunezko egitekoa beharko luke, euskal herritarrok zutik jarri eta "nahikoa da" oihu egitea. •

# Herri boterea

**Andoni Egia**

**O**tsaila erdialdean lagun bat, mugimendu sozialetan erreferentziazko militante bat zena, zendu zen Bartzelonan. Twitterren @PoderPopular zeritzon.

Gertakari tristea, mingarria, eta are okerragoa, ekidingarria.

Gu danori, gutako bakoitzari egin zigun azkeneko aldarria, azkeneko garrasia, azkeneko ekintza zuzena. Zuzenean, gutako bakoitzaren bihotzera apuntatuz. Zuzenean, gu guztion bihotzean joz.

Une horretara bitartekoa, normala. Tristea, oso tristea, baino normala. Jendea jai, bizi eta hil egiten da, betidanik eta betirako, atzera bueltarik gabe.

Une horretatik aurrera pasa zena, ordea, inoiz egin, sentitu, eta bizi izan dudana/du-

gun gauzarik polit, berezi eta sendagarri-netakoa izan zen: gorpua berreskuratu, eta auzoko *ateneu*-an komunitarioki beilatu.

Lagunarekin, azkeneko mozkorra hartu eta azkeneko parranda egin; azkeneko negar, irri eta abesti amaiezinen artean.

Hilotza lepoan hartu, bandera gorribeltza gainean jarri, eta komunikatu gabeko manifestazio batekin, hilerrira arte dagoen azkeneko paseoa, elkarrekin eman.

Azken omenaldian, berak sustatutako borroka ezberdinak kokatzen ziren espazioak bisitatu: kamioi, soinu ekipo, aurkezle eta guzti. Bartzelona geure egin, eta oroimen kolektiboa eguneratuz, ametsez eta borrokez eginak gaudela elkarrekin gogoratu.

Proposatu zuen azkeneko ekintza egin, amestu zuen azkeneko okupazioa burutuz. Egun irekita darraien eraikina berreskuratu, eta leloan dioten bezala, bizitzaz eta elkarrenganako zaintzaz, hutsik zegoen espazioa bete.

Bizitzaren azken uneetan eta lurperatu baino lehen, maitatutako gorpuarekiko bizitzen dugun desjabetze prozesua ekidin genuen. Agur esateko darabilzkigun ohiturak eragiten duten atsekabearekin puskatu, eta gorpua, momentua eta prozesua berreskuratuz, emandako pausu eta burututako ekintza bakoitza kudeatu genuen, kolektiboki, komunitarioki. Legalitatea alboratu eta legitimitatea praktikatu; ezinezkorik ez dagoela erakutsiz, herri boterea inposatu genuen. Eskerrik asko, Pablo. •